

Poesia

PAKO ARISTI

Maitatu zure egunak



erein

MAITATU ZURE EGUNAK

Poesia, 40

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurkitzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2018ko maiatzean

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Pako Aristi

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-314-5

L. G.: SS-546/2018

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Pako Aristi

MAITATU ZURE EGUNAK



1

Gaur denetik ikusi dut:
kazkabarra auzunea zuritzen,
euriaren emana
zerua estolda bihurtu nahian,
eguzkia ere bai zatika,
eta haizeteak hurrena
arbolen adarrak
erregu betean korapilatuz.

Lehen loreak ere ikusi ditut,
hiru lore lotsati
San Anton mendiko
bankuaren azpian.
Eta txoriek hartu dute lekua
leihopeko habian, urtero legez,
berogailuaren hodia belarrez betez.
Bertatik kumeak ateratzen
ikusiko dut martxoan.

Etxe aurreko sahasak
erakutsi ditu setati lehen altsumak:
inporta dio otsail hasiera izatea!
Dena da berria, lehenbiziko aldiz
gertatu bailitzan, etxean agertu zaidan
eulia bezala, urteko lehena,
neguaren boterea arrakalatuz,

ilunabarra ebakitzen duen
izotzaren distira elektrikoarekin
gailurrak elurpean
isiotzen diren bitartean.

Gaur denetik ikusi dut:
Begiak bete dizkidan egun bat
oparitu dit harridurak.

Zazpigarren uhinaren
 beldur bizi dira
 lanperna biltzaileak
 Malpican, Igeldon,
 Quiberongo haitzetan.

Zazpigarren uhinak
 hil egiten du.

Zeharka entzungo dute tabernan
 eguraldiaren albistegia,
 begiak karta-jokoan,
 belarriak haratago,
 arriskua neurtzen:
 olatuak 2-3 metrokoak,
 periodoa 10-12 segundo.
 Gehienez ere, 84 segundokoa
 zazpi olaturen artean
 dagokeen arnasaldia.

Minutu bat, eta ezer gutxi,
 oinak zakatz utzi dizkizun
 uhinetik zazpigarrena
 bistaratzeko.
 Hil zaitzakeen hura.

Hala ere, gure anbizioarekin
jolas eginez itsasoak
igor dezake uhin bat
minutu erdira, sokatik tiraka
haitzak urratuko duen
haragiaren bila.
Hori duzu prezioa.

Itsasoaren ezaugarria baita
–poesiaren, amodioaren–
ez entregatzea misterio guztiak,
ez bada heriotza ere
maitatzeko lezioa.

Aleak jaso zaizkion mahastia
laster horailtzen da
hego-haizearen higaduran.

Habeak teilatutik urruntzen
hasiko dira emeki
inor bizi ez den baserrian.

Laster zornatuko du herdoilak
burdina portu zaharreko
barandetan.

Horitzen da
fruitua eman duen xirmendua.
Hotziltzen da
tximinia itzalitako etxea.
Kresalduko da herdoila
uhinen oldarrean.

Iragarriz gizakiaren gaitza:
fruitua eman beharra,
eta eman eta gero
denok izango garen
postal zahar batetik
ihes egin ezina.

Une egokia noiz den
ezin jakin.
Ehizan gertatzen da,
amodioan ere bai.

Poema noiz agertuko den
zure gogoaren erdian,
goiz-alba izoztuaren amarauna
puskatuz bisutsa zulatuz,
ezarian, apurka,
ala bat-bateko etorrian.

Eta zer misterioa,
gaur egun ere!
Beti izan omen da horrela.

Parkean, paperik ezean,
zurzuri baten hostoa
ekarri dit udazkenak,
folio bat baino hauskorrago
bere zain idorretan.

Oroitaraziz bezala
poesia zer den,
kea, gandua, gurma
kraskatzen dituen
oreka berri baten
erregalia.

Itsasoa duzu begira,
zilar harrobi denean
eguzki galdatan.

Itsasoa duzu begira,
itotako ahotsen ufada denean
enbata zakarretan.

Itsaso amandre,
itsaso traidore.

Itsasoa duzu begira,
ea itun zaharra
betetzen duzuen.

Izurde eta baleek,
ubarroi eta gizakiek
sinatu zenutena.

Itsaso jori,
itsaso urri.

Lurrari mugak ezartzen dizkio,
bere portuak zabaltzen
zure irudimenari.

Itsaso sabel,
itsaso iturri.

Arbolen eritasunari
udazkenean
edertasun deitzen diogu.

Jakinik enborraren muinean
lurrerantz doan odolak
hostoak hiltzerat
utziko dituela,
ederresten ditugu haien koloreak,
urtearen azken margoak
begien betegarri.

Zergatik zaigu, ordea,
geure heriotza propioa
horren beldurgarri?

Ezin al litezke eder izan
agureen xerlo zuriak,
haien zimurretan
ostentzen diren
kolore guztiak?

Zergatik ez lasaitu
zergatik ez pentsatu
laster bizi-hatsak

abandonatuko duenaren
edertasun bera
izanen garela
udazkenean?

Lehen aldia du haurrak,
 lehen eguna hondartzan.
 Harea du eskuetan,
 orain badago,
 orain ez dago.

Hatz artetik doakio ihesi,
 hareak hareatzara itzuli nahi,
 haurrak amarenera bezala,
 bularra edoskiz,
 aitzintze arte egona den
 sabelaren oroimena
 elikatzen duen bitartean.

Amak argazkia atera dio,
 hain dago xalaua!
 Kapela, pixoihal eta sandalia,
 denak zuri,
 dena a juego!
 Plastikozko pala bat eskuetan,
 zertarako den ez dakiena.

Klik berri bat entzun da:
 aita da orain
 estanpa jaso nahi duena.
 Amak haurrari,
 aitak amari eta umeari,

eta nik hirurei egin diet argazki
poema honen bitartez,
ezaxolati begira dugun
itsasoaren aurrean,
izu baten mehatxua
pixelatu nahian.
Zein izu, ordea?